



Errua

1

Esaten da **errua** "kalte bat eragiten duen akats bat" dela. Irakurri ondoko egoera hauek, eta sailkatu itzazu.

1. Peio autoz zihoala, ez da geratu gorri zegoen semaforo batean, eta oinezko bat harrapatu du.
2. Karmentxuk harri batekin estropezu egin du, eta lurrera erori da.
3. Tximista bat zelai batean erori da, eta paseatzen ari zen pertsona bat zauritu du.
4. Emiliok etxeko atea zabalik utzi zuen, eta katuak ihes egin zuen.
5. Errepidea zartatuta zegoenez, motor-gidariak irrist egin zuen.
6. Patxi sofaren atzean ezkutatu zen bere arrebari ezusteko bat emateko. Eta hainbestekoa izan zen ezustekoa, ezen arreba negarrez hasi baitzen!

Pertsonen eragindako kalteak	Pertsonen eragin ez dituzten kalteak
1	

● Orain, adierazi zer akats diren nahita egindakoak eta zein ez.

nahita egindakoak → _____


nahi gabe egindakoak → _____

● Uste duzu pertsonen egindako akats guztiak zigortu egin behar direla? Zergatik?

2 Irakurri Emoziotegiko 36. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Errudun sentitzen gara zerbait txarra egin dugula uste dugulako.
- Erruak gure jokabidea ona edo txarra izan den erabakitzen laguntzen digu.
- Errua besteengandik datorren zerbait da, ez norberarengan dagoen zerbait.
- Errua zugandik kanpo dagoen ahots bat da.

3 Emoziotegiko 36. orrialdeko testuak dio **errua** gure ekintzen termometroa dela. Jarri termometroan gaur egin dituzun hiru gauza.



Txarra _____

Erdipurdikoa _____


Ona _____

4 Orain, irakurri gaur Idoiak egin duena, eta azpimarratu haren ekintzarik onenak urdinez, eta txarrenak, gorriz.

Idoia

Gaur amak artahia jarri dit gosaltzeko, baina ez zait gustatzen, eta ez dut jan. Gero, nire ahizpa Alaitzek nirekin jolastu nahi zuen, baina ezetz esan diot sei aldiz eskatu didan arren. Gero hobeto pentsatu dut. Eta egunen batean nik harekin jolastu nahi badut? Hortaz, gogorik ez nuen arren, elkarrekin jolastu dugu, eta primeran pasatu dugu.

5 Osatu gurutzegrama Emoziotegiko 36. orrialdeko testuan dauden hitzekin.



1. Ekintza bat baloratu edo balioetsi. **2.** Ondo ez dagoen zerbait egiten dugunean barruan entzuten dugun hori. **3.** Tenperaturaz gain, gure ekintzak onak ala txarrak diren neurtzeko balio diezagukeen tresna. **4.** Gure ekintzen erantzule garaia esaten digun sentimendu hori. **5.** Ohorea galtzeak, egin den hutsak, hartu den irainak, edota zenbait pertsonaren aurrean egoteak sortzen duen sentipen desatsegina.

6 Osatu definizioak **erruaren** familiako hitzekin.

erru> errudun errua egotzi barkatu

- Anek gela hankaz gora egotearen _____ zidan.
- Koldok ez ninduen agurtu, baina _____ egin nion. Arretarik gabe zihoan.
- Krimen hori gauzatzearen _____ dela erabaki dute.

7 Idatzi errua sentitu duzuneko hiru egoera.

● Zer kalte eragin zenituen?

● Zigortu zintuzten egoera horietakoren batean? Zergatik?

● Egin zenuen ezer eragindako kalteak edo egoera konpontzeko? Zer?

8

Aztertu Emoziotegiko 36-37. orrialdeetako irudia, eta erantzun.

● Zer uste duzu irudikatzen duela burdinazko bolak?

● Zer gertatuko litzateke bolak luze iraungo balu hor?

● Nola aska liteke ontzia bolatik?

9

Marrastu ontzia zamarik gabe.



Errua

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.